



HAL
open science

Lankidetzta Ekonomikoko Lurralde Gunea, Seignanx, Akitania-Berria (Hego-Akitania, Frantzia)

Xabier Itçaina

► **To cite this version:**

Xabier Itçaina. Lankidetzta Ekonomikoko Lurralde Gunea, Seignanx, Akitania-Berria (Hego-Akitania, Frantzia). Carlos Puig Lizarraga; Luis Guridi Aldanondo (coords.). Lurraldeak eta gizarte-ekintzailetza Ekonomia Sozial eta Solidarioan, Universidad del País Vasco, Euskal Herriko Unibertsitatea, Hegoa, pp.40-46, 2020, 978-84-16257-69-0. hal-03154731

HAL Id: hal-03154731

<https://hal.science/hal-03154731>

Submitted on 1 Mar 2021

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Lankidetza ekonomikoko lurralde gunea (Hego-Akitania)

(Seignanx, Nouvelle-Aquitaine)

Xabier Itçaina*

1. Sarrera

Hego-Akitaniako Lankidetza Ekonomikoko Lurralde Gunea (PTCE) Frantziako Akitania Berriko Departamenduko Seignanx eskualdean kokatzen da eta 2014ko uztailaren 31ko Ekonomia Sozial eta Solidarioko 2014-856 Legeak onartutako erakundea da. PTCEa honako hauek osatzen dute: ekonomia sozial eta solidarioko enpresak, ikerketa-zentroak, goi-mailako ikastetxeak, prestakuntza-erakundeak edota edozein pertsona sozialki edo teknologikoki berritzaileak diren proiektu ekonomiko eta sozialen zerbitzurako mutualizazio- edo lankidetza- estrategia komun bat martxan jarri nahi duena, eta tokiko garapen iraunkorra gauzatu nahi duena,

Guneak Frantzian zehar banatzen dira eta, gaur egun, 150 erakunde baino gehiago biltzen dituzte. Horiek lurraldeko hainbat eragilek osatzen dituzte (elkarteak, kooperatibak, tokiko agintariak, enpresa tradizionalak eta unibertsitateak) eta hauek indarrak batzen dituzte lurralde-garapena sustatzeko helburua duen proiektu ekonomiko komun baten inguruan. PCTEen jarduera eremuak askotarikoak dira eta testuingurura egokituta daude. Horien artean ditugu, adibidez, jarduera ekologikoak, enplegua eta lanbide-karrerak bermatzea, elikadura eta nekazaritza iraunkorra...

Beraz, PTCEek, lurralde-garapeneko tresna bezala, enplegua sortzen eta sozialki eta ekonomikoki kaltetutako lurraldeak suspertzen laguntzen dute. Hori, neurri handi batean, Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeek (**ESSko Laborategia**) hasitako lankidetza ekonomikorako moduei eskertu behar zaie; izan ere, erakunde horiek, gizarte- eta ingurumen-

* Xabier Itçaina CNRSko ikerketa zuzendaria eta Emile Durkheim Zentroko Zuzendaria da.

helburuengatik, gobernatzeko moduengatik eta lurraldean errotuta daudelako, eragileen arteko lankidetzak eta mutualizazioak sustatzen laguntzen dute.

PTCE bakoitzak ezaugarri zehatz batzuk izango ditu, lurraldeko errealitatearen arabera. Hala ere, guneen helburu, balio eta printzipio nagusiak biltzen dituen **PTCE araudi** bat dago. Honako hauek dira bertan jasotako helburu nagusiak:

- a) Jarduerak eta kalitatezko enplegu iraunkorrak sortzea, finkatzea eta garatzea, lurraldearen eta bertako biztanleen onerako. Jarduera ekonomikoak lurraldean errotuta egotea lantzea, alderdi interesdunen arteko lankidetzan oinarritzen den espazio batean.
- b) Ekitate, elkarrekikotasun eta konpromiso boluntarioko printzipioetan oinarritutako gobernantza demokratikoa ezartzea, alderdi interesdun guztiak inplikatur.
- c) Lurraldeko herritarrak, eragileak eta erakundeak tartean sartzea, horiek edozein tamainakoak direlarik.
- d) Gizarte-berrikuntzan eta onura sozialeko ikerketan inbertitzea, gizartearen beharrei erantzute aldera.

Hego-Akitaniako PTCEa 2014an eratu zen, **Comité du Bassin d'Emploi du Seignanx** batzordeari esker. Erakunde horrek hogeitau urte baino gehiago daramatza eskualdeko ekonomia-, lurralde-, komunitate- eta kultura-garapena sustatzen. Industrializazioko mende baten ondorio den eskualde horrek lan- eta gizarte-krisi handia izan zuen 1970ko hamarkadan. Harrezkerotik, lan-egoera zailaren aurrean, lurraldeak bertako eragileen konpromisoaren eta mobilizazioaren alde egin du.

Hego-Akitaniako PTCEaren helburu nagusia, gainontzeko guneenaren moduan, denon onurarako den tokiko dinamika bat elkarrekin eraikitzea da. **Ekonomia Sozial eta Solidarioko kide-talde** bat da, ESSa eta Hego-Akitaniako lurraldeak garatzeko proiektu komun baten inguruan elkartuta eta tokiko komunitateekin eta tokiko enpresekin lankidetzan. Horretarako, guneak hainbat espezifikotasun lantzen ditu, hala nola eragile publikoen eta pribatuen lankidetzak, tokiko baliabideak balioestea, jarduera ekonomikoak lurraldean errotzea, gizarte-berrikuntzan inbertitzea, herritarren, eragileen eta erakundeen inplikazioa edo tokiko finantzazioa mobilizatzea.

Azken finean, hainbat elkartek osatutako gune horren dinamikaren oinarrian ekonomia sozial eta solidarioaren logika dago. Ikerketa-zentroen

parte-hartzeak bermatzen du PTCEan sortutako esperientziak ikertuak eta zabalduak izango direla eta, neurri handi batean, erreplikatuak. PTCEetan, bada, prestakuntza eta ezagutza tokiko garapenaren funtsezko eragiletzat hartzen dira; horregatik, tradizioz eta PTCEa sortu baino lehenagotik ere, 1970ko hamarkadaz geroztik, lurraldeak arreta berezia hartzen du gazteen enpleguan eta prestakuntzaren bitarteko gizarteratzean.

Dagoeneko aipatu dugu ikerketa-erakundeek -Emile Durkheim Zentroa eta Alpes Solidaires Elkarte- PTCEko eragile gisa parte hartu dutela. Alabaina, Lurralde Gunean beste prestakuntza-eremu batzuk daude, hala nola ekonomia sozialeko **enpresen buruentzako prestakuntza** eta oso nabarmenak diren SCIC Ecole **laneratze-kooperatiba**, 2005ean sortua, eta PERF Heziketa Zentroa, 1982. urtetik gazteak lan-merkatura sartzeko prestatzen dituen.

2. Erakunde sustatzaile eta parte-hartzaileak

Hego-Akitaniako PTCEa **CBE Seignanx** batzordearen ekimenari esker sortu zen. Batzordeak, 20 urtez ekimenak eta proiektuak sustatu ondoren, hauek sustapen-plataforma espezifikoko eta iraunkor batean biltzea garrantzitsua zela erabaki zuen. CBE (Seignanx Arroko Enplegu Batzordea) da, beraz, Hego-Akitaniako PTCEa sustatzen eta dinamizatzen duena.

Hala ere, gaur egun, lurraldeko garapen ekonomiko eta sozialean interesa duten hainbat eragilek gunean parte hartzen dute eta horren orientabideak erabakitzen dituzte. Hala, gunea osatzen duten eragile ekonomiko, sozial eta instituzional horien sarea lau mailaren arabera sailka daiteke:

- a) **Tokiko eragileak:** hainbat erakunde, hala nola CBE bera, École Restaurant Solidarie sukaldaritza-eskola, Herrikoa kooperatibak sustatzeko sozietatea edo Habitat Jeune de Pau-Pirinees elkarteak.
- b) **Eskualdeko eragileak:** zehazki, Aquitaine Active enpleguaren finantzaketa solidariorako funtsa, LesSCOOP eskualdeko kooperatiben elkarteak eta Uniformation.
- c) **Lurraldeko erakundeak:** Tarnoseko Udala, Landetako Kontseilu Orokorra, Communauté de Communes du Seignanx (Seignanxeko Udalen Komunitatea) eta Akitania Berria Eskualdea (Région Nouvelle-Aquitaine) bera.
- d) **Ikerketa-erakundeak:** Emile Durkheim Zentroa eta Alpes Solidaires Elkarteak.

3. Beste kolektibo eta sare batzuekiko harremana

PTCEa sustatzen eta bertan parte hartzen duten erakunde guztiak askotariko eragileen sare zabal bat edo *multistakeholder* bat osatzen dute. Gainera, lurralde-aliantza espezifikoak sortzeko borondatea dago. Akitania Berria Eskualdeak egitura kultural, soziologiko eta politiko oso zehatza du. Bertan Okzitaniako eta Euskal Herriko eskualdeak daude. Hala, guneak aliantza hauek sortu nahi ditu:

- **Okzitaniako Biarnorekiko aliantza.** Horren hiriburua Paue da. Guneak lotura estua du lurralde horrekin enpleguaren eta gazteen prestakuntzaren arloko gaietan, baita SCIC Pau-Pyrénées izeneko kooperatiba-inkubagailuaren bitartez ere. Halaber, Tarnosekiko loturari eta tresna kooperatiboari esker, Paueko ESSko eragileek, erakunde publikoekin duten elkarrizketan, garapen ekonomikoaren eragile direla esan dezakete, eta ez soilik gazteria- eta etxebizitzakontuetara mugatutako gizarte-garapenaren eragile.
- **Euskal aliantzak.** ESSaren ibilbidea oso bestelakoa da Landetan eta Euskal Herriko Iparraldean, lurralde mugakideak diren arren. Hala ere, mikrofinantzak edo ekonomia zirkularra bezalako helburuekin, PTCEa gai da Herrikoa edo Eusko bezalako eragileekin hitz egiteko eta lankidetzan aritzeko. Gainera, argitalpen honetan ere aztertu den ETESS proiektuari esker, lankidetzak hori mugaz haraindikoa da.
- **Landekiko aliantza.** PTCEak lotura estua du Landetako hainbat eragilerekin, bertan kokatzen baitira Hego-Akitaniako Lurralde Guneko eragile gehienak. Aliantza horiek, batez ere, elikadura-zirkuitu laburren arloan, mugikortasun gaietan (Landetako Hegoaldeko mankomunitateen arteko Mugikortasun Plataforma) eta GEIQetan ematen dira, azken horiek Seignanxeko, Euskal Herriko, Daxeko eta Mont-de-Marsaneko enplegu-ekimenetan aktiboak direlarik.



4. Emaitza eta inpaktu nagusiak

a) Lurraldeko hautetsiekin egindako lan politikoak hainbat **maila politiko-administratibotan** izan ditu emaitzak, eta ondorio positiboak izan ditu lurralde politika publikoetan, hala nola:

- Merkatu publikoetan **klausula sozialak** ezartzea.
- **Kolektibo publikoen inplikazioa** ESSren esperientzia batzuen gobernantzan (tresna kooperatiboen bidez, hala nola IKSak (interes kolektiboko kooperatiba-sozietateak).
- Landetako udalerrietako hainbat elkartek **mugikortasun proiektuan parte hartzea**.
- **Politika publikoen babesa** hainbat kooperatiba inkubagailuei eta enpleguaren tokiko merkatuko prestakuntza bitartekaritzako egiturei (GEIQ: Groupements d'employeurs pour l'insertion et la qualification).
- Hendaiaiko **udalerriarekin lan egitea** ESSren inguruan.
- Nekazaritzan diharduten euskal aktoreekin eta landestarrekin lan egitea **nekazaritzako espazio-test** baten inguruan.
- Europako funtsak mugitzea ESSren **Mugaz Gaindiko Eskolaren** proiekturako (ETESS), etab.

b) Lankidetzaren Ekonomikoko Lurralde Gunearen helburu nagusietako bat, bere **inkubazio-esperientzia** da. Horrek, bada, hainbat proiektu lagundu ditu ESSko ikuspegi batetik, baliabideak sarean partekatzen eta ekintzaile kolektiboak lurraldearekin eta bertako eragileekin harremanetan jarriz. Eremu ekonomikoen artean ditugu, besteak beste, etxez etxeko gizarte-laguntza edo kafetegi solidarioak. Inkubazio-lan hori hiru proiektuk osatzen dute:

- **Société Coopérative d'Intérêt Collectif (SCIC) Interstices Sud Aquitaine**. 2002az geroztik, kooperatiba hau izan zen inkubagailu sozialaren forma juridikoa zuen lehena. Ekintzaitza-ekimenei babesa ematea, laguntzea eta aholkatzea du helburu baina baliabideak partekatuz eta finantzatzuz ere laguntzen die ekimen horiei.

- **Société Coopérative d'Intérêt Collectif (SCIC) de Pau Pyrénées.** 2013an sortu zen lurraldeko jarduera- eta lan-kooperatiba gisa. Bere helburuak Hego-Akitaniako kooperatibaren helburuen antzekoak dira.
- **Société Coopérative d'Intérêt Collectif (SCIC) Habitat Eco-Action.** 2014an sortu zen eta Tarnosoren kokatzen da. Kooperatibak etxebizitza ekologikoaren arloko proiektu espezifikoak laguntzeko helburua du.

c) Beste alde batetik, hainbat ekimen jarri dira abian, eta hauek ekintzaileak ez badira ere azpimarratzekoak dira zenbait arrazoiengatik; esate baterako, **Plate-Forme Mobilité et Insertions**, Hego-Akitaniako PTCEtik sortua. Horrek, Landetako lau interkomunalitateen elkartearen bitartez, komunitatearen mugikortasuna hobetzen saiatzen da eta talde behartsuenak gizarteratzea eta laneratzea sustatzen du. Halaber, ESSko eragileei zuzendutako baliabideak partekatzen ditu, hala nola lokalak edo material ekologikoak.

5. Erronkak eta aukerak

Hego-Akitaniako Lankidetzak Ekonomikoko Lurralde Guneak, lurralde-mailako konpromisoa hartu du, modu konplexu eta anitz batean, eta erkidegoko sare askotan sartzen da garapen ekonomiko alternatibo baten alde; garapen-eredu hori kooperatiben mugimenduari eta Ekonomia Sozial eta Solidarioari hobeto egokitzen baitzaie. Hala ere, PCTEak berak onartzen du landu beharreko zailtasunak eta erronkak daudela, hala nola hauek:

- a) **Doitze handiagoa lortzea**, bereziki, **ekintza-lurraldeen eta ESSko aktoreak identifikatzeko lurraldeen artean**; eta, oro har, Hego-Akitaniako lurralde- eta politika-dimentsioaren artean. PTCEek lurralde-ikuspegi argi batekin lan egiten dute, Euskal Herriaren, Okzitaniaren eta eskualdeko gainontzeko zatiaren bakartasunak errespetatuz; baina, aldi berean, juridikoki antolatzen dira lurralde osoan.
- b) **Lurraldeen arteko lankidetzaren** ikuspegia gainditzea, hori proiektuen metaketa huts gisa ulertzen bada, eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegia duen lurralde-eredua eraikitzeko bidea hartzea.
- c) **Lurralde-esparru bereizi bat eraiki** behar da, eragile komunitarioekin zein administrazio publikoekin hitz egiten bada, eta hori lortu dute aztertutako esparrutik. ESSak lurralde eredu berri hori eraikitzeko

duen zailtasun nagusia da administrazio publikoak eta, oro har, herritarrak konbentzitzea garapen ekonomikoaren eredu nagusiaren iraunkortasunik ezaz, batez ere bizi maila handiko lurraldeetan.

- d) Ekonomia sozial eta solidarioaren eta unibertsitateen arteko **harremanak indartzea**, prestakuntzaren zein ikerketaren arloan. ESSak unibertsitateekin eta ikerketa munduarekin duen harremana funtsezkoa izan daiteke prozesu horretan; izan ere, irekita dago **begirada kritiko bat izateko** eta ikerketa aplikatuen bilaketa konstantea egiteko, ondorio praktikoekin, lurraldeetako gizarte-logikak uler ditzaketenak.
- e) ESSak gainerako eragile ekonomikoekin egiten duen lanari dagokionez, lankidetzeta eta lehiaketa **harremanak ez dira beti errazak** izaten, batez ere enpresa kapitalista klasikoak edo gizarte-enpresak sortzen ari diren merkatuetan ESSko enprekin lehiatzera etortzen direnean, hala nola ingurumen, zaintza edo gizarte bazterketa sektoreetan. Arlo horretan, politika publikoek erregulazio zeregina izan dezakete, batez ere kontratazio publikoaren bidez.

